

Osasun-asistentzia pribatuko aseguru-primen bolumena %6,3 hazi zen Euskal AEn 2001ean

Aseguratuko urteko batez besteko prima (433 euro) estatukoa baino %17 altuagoa da

2001. urtean, osasun-asistentziako aseguru libreko entitateek (ALEek) aseguraturako biztanleria 299.050 laguneko kopurura iritsi zen, hau da, aurreko urtean baino %0,2 gutxiago; datu horrek esan nahi du ordurako Euskal AEko biztanleriaren %14,4k osasun-asistentziako asegurua kontratatuta zeukala, EUSTATEk eskaintako datuen arabera.


Herrialde mailan, berriro ere Bizkaia da biztanleria aseguratuaren proportziorik handiena duen herrialdea (guztizko biztanleriaren %18,8), eta haren atzetik datoz Araba (%12,8) eta Gipuzkoa (%7,6).

Euskal AEn aseguraturak dagoen biztanleriaren gutxitze horrek, Estatuan ere isla du, %0,6 gutxitu baitira. Beraz, azken urteetako jaisteko joera baieztatu egin da osasun-aseguruko entitate pribatuetan aseguraturakoak etengabe jaisten ari baitira.

Primen balioari dagokionez, aipagarria da **batutako primen guztizkoak** 129 milioi euroko kopurua gainditu izana, urte horretako Euskal AEko BPGren %0,3 hartuz. Primen bolumena %6,3 gehitu zen aurreko urtearen aldean eta datu hori txikiagoa izan zen Estaturako, %4,2 inguruan kokatu baitzen.

Aseguratuko urteko batez besteko prima Euskal AEko guztizkorako 433 eurokoa izan da, 2000n baino %6,5 gehiago. Zifra hori ere Estatuan 2001ean izandakoa (368 euro) baino altuagoa ere bada.

Grafikoa: aseguraturako urteko batez besteko primaren bilakaera (prezio finkoak)



Iturria: EUSTAT eta ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones)

Biztanleko batez besteko gastuari dagokionez, 2001ean 62 eurora iritsi zen, 2000ko zifra baino %5,6 altuagoa.

Taula: Asitentzia Mediko-Farmazeutikoko AL Een bilakaera

	Euskal AE		
	2000	2001	Δ01/00
Aseguratuak	299.778	299.050	-0,2
Biztanleria aseguraturua (%)	14,4	14,4	-0,3
Polizak	151.910	151.849	0,0
Primak (mila €)	121.867	129.520	6,3
Prima biztanleko (€)	59	62	5,6
Prima aseguraturako (€)	407	433	6,5
Gastuak guztira (mila €)	129.507	134.515	3,9
Sarrerak guztira (mila €)	128.622	136.601	6,2
ASISTENTZIA-JARDUERA			
kontsultak (mila)	1.135	1.128	-0,6
Paziente ospitaleratuak	35.832	37.281	4,0
Egonaldia, egunetan	136.799	138.682	1,4
Batez besteko egonaldia	3,8	3,7	-2,9
Ebakuntza kirurgikoak ospitaleratuetan	28.576	27.893	-2,4

Iturria: EUSTAT

Kontratu-motari dagokionez, ohikoena familia-poliza edo banakako poliza izan zen eta kontratatutako polizen %62,2 hartu zuten; %13,6 mutualitate publikoen polizei egokitu zitzaizkien, eta gainerako %24,1, berriz, beste poliza kolektibo batzuei.

Aseguru pribatuaren osasun-sektoreko AL Een multzoak 7.842 **profesional** jarri ditu bere aseguratuaren eskueran, eta koadro medikoa honela osatzen da: medikuntza orokorreko 1.261 mediku eta 5.162 espezialista. Espezialitatekako pertsonal fakultatibotik, Medikuntza Orokorrak eta Pediatriak hartzen dute osasun-profesional gehien, guztizkoaren %24,6, hain zuzen ere.

1.128.243 kanpo-kontsultari erantzun zieten guztira AL Eek 2001ean, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago, eta aseguraturako 3,8 kanpo-kontsulta egin ziren batez beste. Espezialitateka, kontsulta-bolumen handiena traumatologian izan zen (48 kontsulta 100 aseguraturako), eta haren atzetik tokoginekologia eta pediatria datoz (42 eta 41 kontsulta, hurrenez hurren).

Azkenik, aipagarria da AL Eetan aseguraturako pazienteen **ospitaleratzeak** 37.281era iritsi izana, 2000n baino %4 gehiago.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta Savador

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es